

Toki-Alai Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Kontseilaritzaren mendeko HERRI ikastetxe bat da; beraz, erabat finantzatzen du Autonomia Elkartek, eta **DOHAINEKO** du, **IRAKASKUNTZA** besteak beste, ezaugarri nagusi. Horrenbestez

- Premia bereziko egoerak hartuko dira kontuan dohaintasunak bere gain hartzen ez dituen gastuetarako: materiala, eskolaz kanpoko jarduerak edota jarduera osagarriak, esaterako.

Ikastetxe euskalduna da gurea, "D ereduan" oinarritua, hauxe da, EUSKARA da gure komunikazio eta hezkuntza hizkuntza. Euskaraz irakasten ditugu gai guztiak, eta EUSKAL KULTURAREN ezagutza eta harekiko begirunea ditugu jomuga gure ihardunean. Horrenbestez

- Ikasle euskaldunak alfabetatuko ditugu.

- Ahalegin bereziak egingo ditugu haur erdaldunak EUSKALDUNTZEN, Haur Hezkuntzan, bereziki., baina Lehen Hezkuntza osoan zehar laguntza eta errefortzuekin jarraituz

- Euskararen erabilera bultzatuko dugu elkarren arteko harremanetan, hala eskola giroan nola kanpoan.

- EUSKAL KULTURA bultzatuko dugu, haren ezagutza, transmisio eta bizipenari loturiko ihardunak eratuz, eta bestek antolatutakoetan parte hartuz.

Zera dugu helburu, DBH amaitzean ikasleak Autonomia Elkarteko BI HIZKUNTZA ofizialak zuzen erabiltzeko gai izatea eta, beraz, gaztelania ere egoki menderatzea. Horrenbestez

- Gaztelaniazko alfabetatzea bideratuko dugu, Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko 1. mailatik aurrera.

Ikastetxe DEMOKRATIKOA eta PARTE-HARTZAILEA da gurea, Hezkuntza Elkartearen osatzen duten partaide guztien (gurasoak, ikasleak, irakasleak) eta norberaren askatasuna bermatzen duena, akonfesionala eta ideologia joera zehatzik gabea, gure ikasleen artean giza eskubide eta tolerantziarekiko begirunea bultzatuko duena. Horrenbestez

- Norberaren askatasuna, libreki pentsatu, adierazi eta aukeratzeko askatasuna, bultzatuko dugu, Gizarteko beste kideen eskubide eta iritziekiko begirunean betiere.

- Hezkuntza Elkarteko partaide guztien ELKARREN ARTEKO LANA garatuko da, informazio, kontsulta eta erabakiak hartzeko prozedura zabal eta ireki batetik abiatuta, eta Ikastetxeko Erakundearen, hauxe da, Ikastetxeko Kontseiluaren, Zuzendaritza Taldearen, Klaustroaren eta Guraso-Elkarteen garrantzia nabarmenduta.

- Hezkuntza Elkarteko sail guztien arteko begirunea bultzatuko da, eta aintzat hartuko da haren barneko aniztasuna.

Ikastetxe BATERATZAILEA da gurea, ikasleen aniztasunari eta hezkuntza beharrei egoki erantzun nahi diena. Horrenbestez

- Eskola-bizitzaren aberasgarri gisa erabiliko da aniztasuna.

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapena bultzatuko da ikasleen artean.

- Behin behineko edo behin betiko hezkuntza beharrak dituzten ikasleei erantzuteko baliabideak antolatuko dira

Gure hezkuntza prozesuan zehar, ikasleen adimen eta gizarte-garapena neurtzen eta lantzen ditugu, ikasle horiek erraztasunez eta naturaltasunez egokitu daitezen

gizartean eta hartan sortuko zaizkien arazoei egokiro aurre egin diezaieten. Halatan, txikitatik bultzatuko dira haiengan norberaren AUTONOMIA, heziketa eta gaitasunen GARAPENA, hala eguneroko lanean nola irakasleekiko edo lagunekiko harremanetan, SORMENA, AURKIKUNTZETARAKO IRRIKIA eta KRITIKARAKO GAITASUNA. Horrenbestez

- Norberaren AUTONOMIA bultzatuko dugu, ikaslearen pertsona-garapena kontutan izanik betiere.

- Azterketarako tresnak jarriko ditugu ikasleen eskura, behaketa eta kritikarako gaitasuna, lan intelektualerako ohiturak, eskola-egiteko guztien aurreko arreta, kontzentrazioa eta antolamendu txukuna adibidez, bultzatuz eta sustatuko dugu, halaber, informazioaren eskuratzea eta hura bereizteko gaitasuna eta xede horretan irakurketa eta teknologia berriak hartuko ditugu ezagutzarako iturritzat.

- Elkarrekin bizitzeko eta elkarren arteko begirunerako arauak eta ohiturak bultzatuko ditugu, norbera, komunikatzeko gaitasuna kultura eta gizarte esparru guztietara zabal araziz, pertsona gisa gara dadin.

- Oinarrizko kultura amankomun bat eskaini diegu ikasle guztiei, goi-mailako ikasketetan edo lanean oztoporik izan ez dezaten.

KOEDUKAZIOarantz bideratu dugu gure jarduera, berdintasunera heltzeko, sexu desberdintasunak direla-eta inolako diskriminaziorik gerta ez dadin. JENDETASUNA bultzatzen dugu norbanakoa, bereari uko egin gabe, gizarteko partaide bihurtzeko. Horrenbestez

- Lan egingo da, tabuak gainditu eta nesken eta mutilen rola bereiz ez daitezen.

- Aintzat hartuko da talde-lana, ikaskuntza-iturri gisa.  
KOEDUKAZIOAN oinarrizko erregimena bultzatuko da, tradizioaren araberrako rola garrantzirik eman gabe eta ikasleari bi sexuen egiteko-irudi anitzak, bereizketarik gabeak, eskainita.

- Ikasleen partaidetza eta hausnarketarako bideak bultzatuko ditugu gure

inguruko gizarte-giroaren aldeko ekintzetan, ingurugiroaren babes, kontserbazio eta hobekuntzaren aldeko ekintzetan.

Irakasle-talde garen aldetik, ikasleari zor zaion ARRETA, ORIENTAZIOA, ELKARKIDETZA, PARTAIDETZA eta irakasleen ETENGABEKO PRESTAKUNTZA dira gure lanaren oinarriak. Hona gure lanaren ardatz nagusiak:

- Informazioa, laguntza eta aholkuak eskainiko zaizkie ikasleari eta haren familiari.
- Ikasle bakoitzaren bilakaeraren jarraipena eta ikasketa nahiz lan-giroko orientazioa ziurtatuko dira, eta tutoretza-lanak sendotuko dira horretarako.
- Talde-lana, Ikastetxeko organo eta etapa desberdinen arteko koordinazioa, bultzatuko dugu.
- Irakas jardueraren prestakuntza, berrikuntza eta autoebaluazioa bultzatuko dira.